

ANTSO HANDIA PASTORALA

Urtero bezala, familiako lauok Zuberoara jo genuen pastoralara ikustera. Oraingoan Maulera. Uztailaren hogeita bosta zen eta Antso Handia süjetatzat¹ zuen pastoralaren lehen emanaldira gindoazen. Maulera ordu bat aldean iritsi ginen eta aparkatu genuen ber tokian bazkaldu genuen. Ordurako Maule zazpi euskal herrietatik joandako jendez mukuru zegoen. Hiru eta erdietan hastekoa zen, eta guk, urtero, toki ona hartzeko, ordu erdi bat lehenago sartu ohi gara. Emazteak, hainbeste jende ikusita, lehenago joateko eskatu zigun, eta bertara joan ginen, bera, bi semeak eta ni. Ordu biak ziren eta ordurako pastoralak jokatu behar zen estadioa aski beteta zegoen. Txiripaz baina azkenean toki ona atzeman genuen. Pastoral-liburuxkari begira eman genuen itxaron beharreko denbora.

Izan izango dira irakurleen artean pastoralak ondo zer den ez dakitenak, eta horregatik aurrera jarraitu aurretik azalpen laburra egingo dut ekitaldi honen inguruan. Dirudienez, pastoralak Erdi Aroko antzerki erlijiosoan du oinarri. Garai zahar haie-tan antzerki mota hau oso zabaldua zegoen bai gure artean eta bai Europa osoan, baina mendeak joan mendeak jin, gaur Euskal Herrian bakar-bakarrik Zuberoan jokatzen da. Pastoralak bere egitura berezia dauka. Hasieran lehen perediküa izaten da, eta bertan harrera beroa egiten zaie bertara

¹ Süjeta: Pastoral baten pertsonaia nagusia.

ikustera hurbildu diren guztiei eta ondoren hamabost bat bertsetetan lanaren laburpena eskaintzen zaie. Ondoren jelkaldiak etortzen dira, hogeitun bat inguru, kapitulu modukoak izaten direnak. Eta bukatzeko agurra den azken peredikua.

Jelkaldiak hamar bat bertsetez osaturik izaten dira eta bertan istorioa garatzen da.

Uda partean, herri batek hartzen du pastorala bere gain eta pastorala idazle bati eskatzen zaio edota jokatu gabe daudenen artean aukeratzeko dute. Hurrengo urteko urtarrilean edo otsailean hasten dira prestaketa lanak aurrera eramaten: arropak josten, propaganda egiten, sosa biltzen, paperak banatzen, mostrakak² egiten... Lana ez da falta izaten. Errejenta³ bat aukeratzeko dute zuzendari gisa, eta paperak banatzean, sujeta, hau da, protagonista nagusiaren paperak egiten duena aukeratzeko dute. Azkenean, uztailaren erdi aldean mostrakak nagusia egiten dute jende aurrean eta uztailaren azken igandean lehen emanaldia jokatzen. Bigarren emanaldia agorriaren lehen igandean izaten da. Geroxeago, bi emanaldi gehiago izaten dira Zuberoatik kanpo, normalean Hegoaldeko herrialdeetan. Aurtengoak Hondarribian eta Laudion izan dira. Lehen pastoralak bizpahiru egun irauten zuten eta gaur egun hiruzpalau ordu.

Gehienek antzerkitzat jotzen badute ere, badira pastorala aparteko generotzat jotzen dutenak. Pastoralaren barneko pertsonaiak bi multzotan banatzen dira: kiristiak eta türkak⁴, lehenak onak dira eta bigarrenak gaiztoak, eta bi multzo horietako pertsonaiek garatzen dute sujetaren inguruko istorioa. Horiez gain badira bestelako pertsonaiak: satanak, apezkupua, aingurak... Satanak herriko dantzaririk hoberenak izaten dira eta euren dantzetan errezitatzen dituzten bertseten bidez egoerak

² Mostrakak: Pastoral bat jende aurrean jokatu aurretik egiten diren saioak.

³ Errejenta: Pastoral zuzentzen duena.

⁴ Kiristiak eta türkak: Kristauak eta turkoak.

zirikatzen dituzte. Apezküpüa⁵ eta aingürüak⁶, berriz, zenbait egoera subliminaletan ateratzen dira euren bedeinkazioa emanenez. Tarteka kantoriak⁷ eta dantzak ugariak izaten dira, eta bi bandoetako pertsonaiek zenbait egoera lazgarriren aitzinean, borrokatzen dira güdükak izenekoetan.

Pastorala triate izeneko agertoki handi batean jokutzen da eta bertan hiru ate daude. Ezkerrekoa urdina da eta bertatik irten eta sartu egiten dira kiristiak, eskuinekoa gorria da eta bertatik atera eta sartu egiten dira türkak eta satanak, eta azkenez, erdialdekoa zuria da eta bertatik agertu eta desagertu egiten dira apezküpüa eta aingürüak. Triatearen goiko aldean kaxa moduko bat dago eta bertan kokatzen dira musika-riak; honen azpian pastoralaren izena idatzirik egoten da. Ate gorriaren gainean zurezko deabru bat dago, türken momentu onenetan, atzetik eraginda, hankak eta besoak mugituko dituena. Errexenta ate urdinaren aurrean egoten da eserita, eta ikurrin urdin edo gorriren bidez, azaltzen du zein bando den irtetekoa.

Garai batean gaiak erlijiosoak baziren ere, hori aldatu zen XX. mendearen erdialdean Etxahun-Iruri pastorailegile handiari esker, honek Euskal Herriko pertsonaiak aukeratu baitzituen süjetatzat. Eta orduz geroztik horrela izan da:

Etxahun-Barkoxe, Zantxo azkarra, Iparragirre, Bereterretx, Ibañeta, Zumalakarregi, Santa Krutz, Matalaz, Txikito de Kanbo, Sabino Arana, Xalbador, Agirre lehendakaria, Ramuntxo pilotaria... Eta aurten Antso Handia erregearen mi-lurtekoan bera izan da süjetatzat aukeratua. Pastorala edo tra-geria Jean Luois Davantek idatzi du eta hogeita hiru jelkaldiz egituratu.

⁵ Apezküpüa: Apezpikua, gotzaina.

⁶ Aingürüak: Aingeruak.

⁷ Kantoria: Kantua.

Hiru eta erdietan, puntu puntuan, sartu ziren pastoralak osatzen zuten guztiak eta triatera igo. Lehen peridiküa⁸ guztiz hunkigarria izan zen eta estadioa gainezkatzen zuten lau mila eta lauhun ikusleren bihotzak hunkitu zituzten. Dena prest zegoen, arizaleak eta publikoa. Jelkaldiz jelkaldi, dantzaz dantza, kantuz kantu, publikoak atsegin handiz segitu zuten pastoralaren garapena. Bero handia zen arren, jendea ez zen bere tokitik mugitzen, eta gogotik txalotzen zituen arizaleen jardura, bereziki sataneriaren dantza gogoangarriak eta jota bat kantatu eta dantzatu zuteneko momentua. Azken perediküan, hau da, süjetaren hiltzean, zirrara bere mailarik gorenean zegoen. Osora, ehun eta hemezortzi arizalek jardun zuten eta süjeta lanetan Jojo Malharin aritu zen. Dene-denek lan bikaina egin zuten.

Pastoral ororen bukaera aldean, eta ohiturari jarraituz, antxerak izaten dira. Antxera enkante modukoa da eta herrietako ordezkariak dirua eskaintzen dute norgehiagoka. Azkenean, diru gehien ematen duen herriak eskubidea dauka bere herri-tarrek triatera igota, muñeñak eta aitzina-pika izeneko dantzak egin ditzaten. Normalean, hurrengo urteko pastoralak eginen duen herria antxerak irabazten saiatzen da, eta aurtengoan horrela izan zen. Ligi-Aterei izanen da hurrengo urtean Bereterretx pastoralak emanen duena, eta antxerak mila eta berrogeita hamar euroekin irabazi duena. Ligitarrek gogotik ekin zioten moñeñak dantzatzeari.

Ondoren ondorengoa, aldamenean ezarritako bafra luzea jendez gainezka, zuberotarrak kantuan edota elestan, eta beste herrialdeetatik joandako beste euskaldunok, lagunak agurtzen eta afari-mokadua egiten. Guk ere, horrela egin genuen. Txinkorra⁹ jan, sagardoa edan eta gero autora. Antso Handia oso pastoral ederra izan da, hurrengo urtekoa, hau da,

⁸ Lehen peridiküa: Pastoral baten sarrera.

⁹ Txinkorra: Txingarra, hau da, xerra gisa ebakitako urdai edo urdaiazpiko zatia.

Etxahun-Irurik idatzi zuen Bereterretx ospetsua ere, ederra izan da, zalantzarik gabe. Bitartean, badira zenbait idatzi zein herrik aukeratuko eta jokatu duen zain. Horietako bat dugu Jean Bordaxar zuberotar kantari handiak idatziriko *Telesforo Monzon* izenekoak. Ni irrikatan nago pastoral hau triate gainean ikusteko, Monzon batek zinez merezi baitu pastoral bat, eta gehiago oraingo garaietan, alderdi politikoak legez kanpo uzten direnean, euskarazko egunkariak ixten direnean, euskara baztertu edota debekatzen denean, eta Euskal Herri hitz bera ere führer berri batzuek galarazi nahi dutenean. Jean Luis Davantek berak berrehun eta berrogeita hemezortzi bertsetan, hau da, azken perediküan gonbita egiten zuen, eta nik bat egiten dut berarekin.

Ordünko eüskaldün güziak,
erresuman bildü zütüan.
Arrapizten zaigü xedea,
Monzon baten üngürüan.

Joseba Aurkenerena

Urruña, 2004ko uztailaren 30a.